

## **Euskal diaspora : kidesun partekatuaren adibide ?**

Komunitate bat diasporatzat izendatzeko bi baldintza bete behar dira: komunitateko kideek nortasun kolektibo bat partekatu behar dute eta jatorrizko herriarekin loturak atxiki behar dira. Euskal diaspora bat badela erran dezakegu hots. Diaspora hori ainitza da: besteak beste, inmigrazio esperientzia ezberdinek eta hizkuntza ezberdinek osatzen dute. Ondorioz, Euskal Herritik kanpo historian zehar osatu diren euskal komunitateen aipatzeko “euskal diaspora” singularrean baino, “euskal diasporak” pluralean erabili behar genuke.

Horiek erranik, diaspora osatzen duten Ameriketako euskal komunitateen bilakaerari interesatuz –izan Estatu Batuetan edo Argentinan adibidez– joera amankomun bat agertzen da. Goiz ala berant, herri ezberdinetan, nortasun euskal-amerikano originalak sortu dira eta aitzina ematen den euskal nortasunak Euskal Herria bere osotasunean hartzen du oinarritzat.

Mintzaldi honen helburua hirukoitza da. Hasteko, euskal nortasun inklusibo hori nola gauzatzen den ikusiko dugu. Bigarrenik, egoera honen faktoreak aipatuko ditugu, komunikabideek rol garrantzitsua jokatzen dutela ohartuz. Azkenik, zazpi lurraldeetako biztanleen artean kidesun partekatuaren lortzeko helburua gogoan, zer heinetan diaspora eredugarri izan litekeen ikusiko dugu.